



ARA!!  
ENTZUTEN  
ARI DIRA  
ETA!!

# GURASO ELKARTEA ITSASONDO, HAURREN HERRIAN.



FRATO 78

UN DÍA, LOS PUPITRES FLORECERÁN

## **ITSASONDO, HAURREN HERRIA**

Aurreko egun batean, Mirenek horrela esan zuen, beti bezala, guraso eta haur herriko plazan geundela:

- Aita! Aspaldian ez dugu Alaitz ikusi!

Miren, normalean ixilik egoten den 5 urteko neska bat da. Oso behatzailea da eta bere amak esaten duen bezala: “ Gauza guztiekin gelditzen da”.

Alaitz, aspaldian plazara etorri ez den 5 urteko beste neska bat da.

- Egia da! Alaitz aspaldi ez da jeitsi plazara! Baina normala da, Miren. Bere lagunak orain bere eskolan daude, Ordizian, eta eskolatik ateratzean, beraiekin egon nahi du.

Alaitz bezala, gure herrian badira dexente haur ondoko herrietara joaten direnak eskolara. Inor epaitu gabe, honek herrian eragin zuzena du; hemen bizia egiten ez duten haurrak nekez izango direlako herriko parte. Hemen gaudenok, hau aldatzen lagundu nahi dugu. Askotan gure artean esaten dugun bezala: “Agian ez dakite zeintzuk diren herrian eskeintzen diren zerbitzuak. Izan ere, azkeneko urte gutxitan, herri bizitza asko aktibatzen ari da.

Horrela ba, hemendik abiatzen da gure partehartzea ***Itsasondo haurren herria***-n. Sinplea da, baina batzutan gauzak gehiegi konplikatzeko ohitura badugu helduok...Hemen bizi garenok ados gaude gure haurrok heziketa ezin hobea jasotzen ari direla haur eskolan eta eskolan: irakasleen inplikazioa, atentzioa, arreta, harremana... eta hezi, eskolatik kanpo ere egiten denez, herrian bizi kalitate oso ona dugulakoan gara: lasaitasuna, gertutasuna, zerbitzuak...( ludoteka, gazte- lekua..)

Orain 2 urtez geroztik, guraso elkarteak udaletxean eman zen parte hartze prozesuaren ondorioz ( ITSASONDO, EKINEZ EGINA), HERRI BIZITZA batzordean bilatu zuen bere lekua. Bertan, herrian gauden hainbat eragile, elkarte biltzen gara ( Ijittu elkarte, Bizi Nahi Jubilatu elkarte, Arbel Haitz elkarte, gazteak, eskolako irakasleak, guraso elkarte eta Udaletxeko ordezkariak) hainbat ekintza elkarrekin aurrera ateratzeko : Iraileko festen antolaketa, Ijittu eguna.... Batzorde honetan parte hartzen dugunetik, herriaren ikuspegi zabal bat edukitzen hasiak gara, hau da, gure haurrak, herriko eskolara doazelako, gelditzen dira arratsaldetan herrian, erabiltzen dute ludoteka, liburutegia. Gero, haztean, gazte- lekuan parte hartzen dute eta geroago ere, herriko martxan herritar aktiboak izateko sustraiak jarri nahi ditugu.

Gauza batek bestera eramaten gintuen eta udaletxeak planteatu ziguten momentuan “Itsasondo Haurren Herrian” ere parte hartu behar genuela argi izan genuen.

## **ITSASONDO, HAURREN HERRIA**

Herria txikia izatean, ez luke zailtasunik egon behar edozelako ekintzak herrian antolatzeko, ezta haur, nerabe eta gazteekin lan egiteko ere. Horretarako, ordea, oso garrantzitsutzat jotzen dugu haurreskolak, eskolak eta ludoteka eta gaztelekuak bat egitea. Horrela, zerbitzu hauen izaera indartzeko, ezinbestekoa da, hauen partehartzea herrian. Horietako bakoitzak elkarri asko dute emateko, lantzeko eta elkarlanean egiteko.

Herri txikietan, umeak elkartzeko oinarrizko leku bihurtzen dira, haurreskola, eskola, ludoteka eta gaztelekuak eta herriari bizitza ematen die, herriko bizitza bermatzen dute. Gauza ederra da hori eta guztiok ere horiek babestu egin behar ditugu bere biziraupena indartuz.

Horrelaxe sortu zen haurren herria egitasmoa.

### ***ORAIN ARTE EMANDAKO PAUSOAK***

5 izan dira orain arte egindako bilerak. Bertan Haur Eskolako eta Eskolako irakasleak, guraso elkartekoak eta Udaleko suspertzailea eta zinegotzia bildu gara.

Lehenengo bileran, taldekide bakoitzaren espektatibak konpartitu genituen. Bertatik sortzear zegoen elkarlanetik zer espero genuen azaldu genuen. Hauek izan ziren erantzunak: ILUSIOA, HERRIAN PARTE SENTITZEA, ELKARLANA, POSITIBISMOA, INPLIKAZIOA, KONPROMEZUA, SORPRESA (Azken honek agerian uzten du danok ez genuela abiapuntu bera eta hori oso aberasgarria zela ikusi genuen).

Horretarako danok geunden lanerako prest. Besteak beste hau nahi genuen: PENTSAKERA ZABALA, ESKOLA HERRIRA JEISTEA, HAURESKOLA IKUSGARRI EGITEA, ESKOLA HERRIAN INTEGRATZEA, PARTEHARTZEA SUSTATZEA, LUDOTEKA IKUSGARRI EGITEA, HAUR ESKOLA EZAGUTARAZTEA

Azken finean, herria mugituko zuen proiektua denon artean egitea nahi genuen.

Lehenengo bilera honetan, motxila ilusioz beteta joan ginen etxera gure egunerokotasunera.

Hurrengo bileran hainbat ekintza zehaztu genituen:

1. Haur eskolak, eskolak, eta gazte- lekuari izena jartzea erabaki genuen. Gure zerbitzuek izena behar zuten, izaera.

Horretarako, herrian deialdia zabaldu zen danak parte hartzea nahi genuelako ( ikasle ohi, jubilatatu, bestelako herritar...). Ekarpinak jaso eta gero, izen hauek jarri genizkien:

**HAUR ESKOLA: URKIPE TXIKI**

**ESKOLA: URKIPE**

**GAZTE-LEKUA: KARREAPE**

**LUDOTEKA: EGUZKI LORE** ( Honek izena bazuen bertako haurren artean jarria)

Izenak jarri eta gero, hauek bateratuko zituen **LOGO** bat behar genuen. Hauek, haurrak eskolan diseinatu zituzten.

3. bileran **MATRIKULAZIO KANPAINA**tz hitzegingenuen. Gure aportazioa, ostiral arrunt batean grabatu genuen bideo bat izango zela erabaki genuen. Ez zen ezer prestatua izan. Guraso eta hainbat herritarrok gure perzepzioen berri eman genuen, batez ere, eskolari buruz. Bideo hau, bertatik abiatuko zen itsasondoko aldizkarirako artikulu bat idazteko grabatu genuen, baina sortu berria dugun blogean jartzeko ere oso aproposa dela iruditu zitzaigun.

5 bilera egin ostean, logoa onartu berri dugu. Hemendik aurrera behin hau maketatutakoan, kamixeta, txandalak edo... aterako ditugu.

Honetaz gain, Haur Batzordea osatzekotan dago, batetik umeak entzuteko, dagokien protagonismoa emanez eta bestetik, herritar aktibo izateko sustraiak landatzeko.

Haurrentzat herrian dauden zerbitzuei buruzko triptiko bat ere sortu da leku esanguratsuetan jarriko dena herritarrentzat irispidean.

Enee! Bai emankorra izaten ari dena!

Agian hemendik 10 urtetara, Miren eta Alaitz elkarrekin ikasteko geldituko dira herriko liburutegian, edo festatan haur txikientzako jolasak elkarrekin prestatuko dituzte...Guk argi daukagu: gure zerbitzuetara datozen umeak etorkizuneko herritar bihurtzeko sozializazio prozesuaren eragile nagusienetakoak garela; umei izaera pertsonala garatzeaz gain, herritar izaera garatzen ere lagundu diezaiekegu, euren herrietako sustraiak eta erroak ezagutaraziz eta haietaz harro sentiaraziz.

Guk behintzat, horrela izan dadin gure hazia jartzen jarraituko dugu.

ITTURRI TXIKI GURASO ELKARTEA

[www.itturritxikige.blogspot.com](http://www.itturritxikige.blogspot.com)

Honekin batera aurkezten ditugun dokumentoak:

- Itsasondo, haurren herria-ko bileren aktak.
- Logoa
- Gurasook prestatutako bideoa ( blogean ikusgai)
- Aldizkarirako idatzitako artikulua

### **ALDIZKARIRAKO ARTIKULUA**

Atzo, normalean bezala, eskolatik umeak jaso eta plazara jeitsi ginen. Normalean bezala ere, eguneroko kontuekin hasi ginen guraso kuadrilla bat...

- Pello! Jan ezazu bokadilloa azkar, gero, 4:30etan Ainarakin ludotekan egon behar dezute eta!
- Joe, aita! Ez zait txorixoa gustatzen!
- Kasuen la ordiga! Ez zaitetz betiko moduan hasi! Jan eta kitto!
- Bueeeno, baina bihar txokolate bokata nahi dut.
- Ados. Bihar txokolatearena jarriko dizut
- .....

Halako batean, 7 urteko Mirenek honako hau galdetu digu:

- Zergatik ez da Alaitz plazan gurekin jolasten..?

Miren, neska berezia da. 7 urte ditu baina azkarra eta bizia da. Ez du gehiegi hitzegiten, bizikletan ibiltzea ere ez zaio gehiegi gustatzen. Gure ondoan egoten da, ixilik, baina adi. Peruk erantzun zion:

- Ba, Miren, Alaitz, Ordiziako eskolara joaten da. Beraz, lagunak han ditu eta eskolatik irtetzean han gelditzen da beraiekin jolasten.
- Ba ze pena!- erantzun zuen Mirenek- asko gustatzen zait berarekin jolastea!

4:30ak iritsi ziren eta ludotekara joan ziren haurrak.

Bitartean bertan geunden 6 guraso, ludotekan zegoen argazki erakusketa ikusten gelditu ginen. Argazki batzuk aspaldikoak ziren. Beste batzutan,ordea, gure umeak zeuden:

Argazki hauek nondik atera dituzte?

Ba eskolan zeuden eta erakusketa bat egitea erabaki zen.

A ze ideia ona! Begira Martxel, zure semea hemen dago!

Bai, ederki ibili zirena irteera horretan, Aramara joan ziren.

Gu ere oso ondo ibiltzen ginen eskolan txikiak ginenean... Akordutzen naiz nola joaten ginen udalekuetara, tailerrak nola egiten genituen...

Tailerrak?

Bai, josten ere ikasi genuen.baitz,Mikel?

Bueno! Batzuk beste batzuk baino hobe! Lehen danak ginen herrikoak.

Orain konturatzen naiz ze zainduak izan ginen.

Eskola txikia izatearenak abantaila pila bat ditu.... Neretzat garrantzitsuenetakoa giroa da, goxotasun hori ez da diruarekin ordaintzen! Danok ezagutzen dugu elkar!

Bai. Ni ez nintzen eskola txiki batera joan, Ordizikoa bait naiz, ta neretzat gure umeak bakarrik, lasai, naturalki sortutako taldeetan eskolara joatea ere esanguratsua da.

Ba, bai. Gure umeak jasotzen duten arreta ezinhobea da. Baita guk ere! Irakasleak eskura daude.

Eskolagatik ez balitz, egongo al ginatke gu hemen plazan elkarrekin kafea hartzen? Gehienok ez genuen elkar ezagutzen eta!

Halako batean Alazne iritsi zen. Lanetik 4:30tan ateratzen zen eta Mainerrek jasotzen zituen bere umeak:

- Iepa! Lehertuta nago! Gaur soldata ondo irabazita nator! Zeinek nahi du kafe bat? Gero udaletxean bilera daukagu eta kafeina pixka bat behar dut. Zemuz atera dira gaur nere altxorrak, Alazne?
- Ondo! Eskulan hau egin dute. A ze artista pareta dezun!
- Bai, horixe! Egiten dituzten eskulan guztientzat lekua falta zaigu etxean...

Kafea hartzen ari ginela, Kepa iritsi zen. Kepa, Alazne eta beste 6 kiderekin batera guraso elkartean dago:

- Ieepa! Alazne! Bilera udaletxean dugu, ez?
- Bai, 6:30tan.
- Ze bilera dezute?
- Itsasondo, haurren herria- rena.
- A! Ta zertaz hitzegin behar dezute?
- Ba eskola/ haur eskola/ ludoteka eta gazte lekuari izenak jarri eta gero, gaur, umeak eskolan egindako logoak ikusiko ditugu, besteak beste.
- Zein ziren ba aukeratutako izenak?
- Haur eskola eta eskolantzako URKIPE, ludotekantzako EGUZKI LORE eta gazte lekuarentzat KARREAPE. Ohitu beharko dugu izen horiekin!
- Hemen dugun artista kuadrillarekin seguro zerbait polita egin dutela.
- Ziur baietz! Gu marrazten hasiko bagina... Eneeee!
- Beno, goazen! Ia ordua degu eta!
- Bai, bihar egongo gara. Aio!
- Aio!

Handik 5 minutura Ekaitz sartu zen tabernan. Ekaitz Herri Bizitzan egoten den udaletxeko zinegotzia da.

- Aupa! Zemuz?
- Hemen, Ekaitz! Beti bezala sufritzen!
- Alazne ta Kepa joan al dira?
- Bai, oraintxe!
- Ze pena! Beraiekin hitzegin nahi nuen...

Eskolako Irati eta Laia sartu ziren orduan:

- Kaixo! Ekaitz, kafe bat hartzeko denbora badugu?
- Aupa! Bai horixe! Nik ere hartuko nuke! Oraintxe iritsi berria naiz lanetik.

Peruk galdetu ziren orduan Irati eta Laiari:

- Zenbat ume hasiko dira datorren ikasturtean 2 urteko gelan?
- Ba momentuz, 3. Aramako 2 ez badira etortzen...
- Baina ez al dira ba 8 kinta hortan Itsasondon jaiotako umeak?
  
- Bai,, hala dira. Ez dakit zein diren arrazoiak beste herrietara eramateko haurrak. Egia esan, gustatuko litzaidake jakitea zeintzuk diren arrazoiak. Horrela, hortan lan egiten saiatuko ginateke. Agian, zerbitzuak falta dira...
- Zerbitzuak falta? Hemen dugun eskola, ludoteka, gazte leku ea. bezalakorik hemendik kanpora topatzea kostatuko zaie!
- Agian ez dakite.....

Orduntxe atera ziren danak ludotekatik. Ui! Barkatu! Eguzki- Loretik, poz pozik eskuetan buztinarekin egindako eskulan batekin.

Mirenek ere, buztinezko lorontzi bat egin zuen. Ohartxo bat idatzita zeukan:

*" ... Alaitz, hau zuretzat egin dut. Lehen asko egoten ginen elkarrekin. Asko jolasten genuen herriko plazan. Halere, zurekin gehien egitea gustatzen zitzaidana loreak biltzea zen. Bihar, udaberrian sartuko garela esan du andereñok. Horregatik egin dut hau zuretzat. Etorriko zara bihar nerekin lorak biltzea? Horrela lorontzi honetan jaso ditzazkezu..."*

Hau, edozein arratsaldetan Itsasondoko plazan gertatzen dena da. Oraintxe grabatu berri dugu bideo bat. Eskolako blogean txertatu dugu gurasoak orrialdean. Bertan ere aurretik egindako ekintzen argazkiak dituzue. Disfrutatuko dituzuelakoan...

<http://itsasondokoherrieskola.blogspot.com.es/>

ITTURRI TXIKI GURASO ELKARTEA